

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Kontzejuentzako eta gurasoen elkarreentzako diru-laguntzen eta 2017ko Eugenio Murguia bekaren deialdia

Udalbatzak 2017ko martxoaren 9an egindako bilkuran honako hau erabaki zuen:

Lehenengoa: udalerriko kontzejuentzako eta Zuiako ikastetxeetako eta Izarrako ikastolako gurasoen elkarreentzako diru-laguntzen eta 2017ko Eugenio Murguia bekaren deialdia eta horiek arautzen dituzten oinarriak onartzea.

Bigarrena: akordio honetan araututako diru-laguntzak, 134.434.000, 165.434.000, 338.434.000, 943.434.000, 943.734.000, 943.734.010, 163.227.011, 410.227.011, 326.481.000, 326.481.040 eta 326.481.060, 326.481.070 eta 334.480.010 partiden kargura ordainduko dira.

Hirugarrena: Deialdi horiek ALHAOn argitaratzea.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegi egokian (txandaren arabera), eta horretarako bi hileko epealdia egongo da erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio argitaratutako berriazko ebazpena eman duen organoari, eta horretarako hilabeteko epealdia egongo da hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgian, 2017ko martxoaren 31n

Alkate-u dalburua

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA

Kontzejuentzako dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak, bere eskumenen arloetarako, bai eta azpiegituretarako eta kontzejuaren jabetzakoak izan ez arren herriaren zerbitzurako diren higiezin mantentze lanetarako ere

1. Deialdiaren helburua.

Dirulaguntzen bidez, udalerriko toki erakundeekin lankidetzan aritzea, aurrekontu mugen barruan, honakoak egiteko: haien azpiegiturak hornitu eta jartzeko, hobetzeko, berriztatzeko, handitzeko, eta, kontzejuen jabetzakoak izan ez arren, herriaren zerbitzurako erabiltzen diren higiezin mantentze lanak egiteko, eta horretaz gain, zerbitzu egokiak emateko, herritar guztien bizitza maila hobetzen laguntze aldera, baldintza berberetan. Horretarako, udal lurralde osoan garapen eraginkor, berdintsu eta koherentea izateko ahaleginak egingo dira.

2. Onuradunak.

Dirulaguntzen onuradun izan daitezke Zuiako udalerrian legez eraturik dauden toki erakunde edo administrazio batzar guztiak, bakoitza bere eskumenen eta azpiegituren eremuan, bai eta erakunde horiek kontzejuen jabetzakoak ez diren higiezin mantentze lanak egiten dituztenean ere, herriaren zerbitzurako erabiltzen badira.

3. Diruz lagundu daitezkeen programak.

Udalerri honetako kontzejuen eskumeneko azpiegitura eta zerbitzuei dagozkien ondorengo arloek jaso ahal izango dute diru-laguntza:

3.1. Kontzejuaren titularitateko ondasunetan egiten diren obrak eta inbertsioek: laguntza lerro hauen bidez lortu nahi da kontzejueri erraztasunak ematea eta administrazioak motibatzea azpiegiturak, zerbitzuak eta ondare ondasunak hobetzeko, beti ere haien herritar guztien onura helburu dutela, iraunkortasun eta lurralde orekaren irizpideen pean.

3.1. atalari dagozkion programa eta proiektuetarako eskabideak aurkezteko epearen azken eguna 2017ko azaroaren 30a izango da, eta egun horretara arte eta urtean zehar obretarako beharrezkotzat jotzen diren eskaerak aurkeztu ahal izango dira.

Ezarritako lehentasun hurrenkeraren arabera, honako atalak desberdindu daitezke definizio honetan:

a) Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren barruan finantzaturako obrek eta inbertsioek lehendik jasotakoaren dirulaguntza osagarria izango dute, hain zuzen, foru erakundeak dirulaguntza hori emateko kontuan hartu duen eta diruz lagun daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 98 artekoa. Ehuneko horrekin osatuko da proiektua idazteko eta ordainsari teknikoak emateko dirulaguntza. Beti ere, ahal den neurrian, kontzejua egon diren deialdi publiko guztietara joan bada.

b) Hainbat erakunderen eta programen dirulaguntza, gutxienez aurrekontu osoaren ehuneko 20koa, izan duten ekipamenduetarako inbertsio eta erosketek aldearen ehuneko 50eko dirulaguntza izango dute, 30.000 euroko mugarekin kontzejuko eta urteko. Portzentaje bereko diru-laguntza jasoko dute proiektua idazteak eta lanaren zuzendaritzak, legeak horiek eskatzekotan.

c) Beste entitate eta erakunde batzuek diruz lagundu gabeko gainerako obrek eta ekipamenduek aurrekontu osoaren ehuneko 18ko dirulaguntza izango dute. Jarduketa horien helburua energia berriztagarriak eta energia eraginkortasuna badira, dirulaguntza aurrekontuaren ehuneko 50 artekoa izango da. Edateko uraren kudeaketa eta ingurumena babesa bada, dirulaguntza aurrekontuaren ehuneko 25 artekoa izango da. Ehuneko 18, ehuneko 25 eta ehuneko 50eko portzentaje bereko diru-laguntza jasoko dute proiektua idazteak eta lanaren zuzendaritzak, legeak horiek eskatzekotan.

d) Kontzejuaren titularitateko ondasunen mantentze lanek aurrekontu osoaren ehuneko 18ko dirulaguntza izango dute, kontzejuak baliabide nahikorik ez duenean.

e) Ehuneko 50eko diru-laguntza emango zaio, beste erakunde bat (Udala, Eusko Jaurlaritz, Aldundia, URA,...) bere lurralde-eremuan egiten ari den lanez baliatuta, beste zerbitzu batzuetarako kanalizazioak sartu edo lurperatzeko lanak egiten baditu. Batzordeak hartuko du diru-laguntza hori emateko erabakia eta erakundeari lehenbailehen jakinaraziko zaio.

Deialdiaren aurrez aurreko 10 urteetan diru-laguntza jaso duen inbertsorik ez da diruz lagunduko, ezta aurreko 10 urteetan diru-laguntza jaso duen inbertsioaren helburua aldatzen duenik ere, ezinbestekoa ez bada behintzat eta, betiere, eskaera aztertuta.

Altzarietarako diru-laguntzen kasuan, dagokion zerbitzua funtzionatzeko beharrezkoa den ekipamendua diruz lagunduko da, merkatuko batez besteko kalitateari dagokion prezioaren arabera.

3.2. Argiteria publikoa: urteko gastuaren ehuneko 95eko dirulaguntza. Dirulaguntza honen helburua da kontzeju bakoitzak arlo horretan egindako gastuan laguntzea, kaleko argiteria publikoan energia kontsumoa murrizteko xedea duten inbertsioak eta jarduketak egitea sustatuz eta aldarrikatuz, Zuiako energia eraginkortasuna eta indarra hobetze aldera.

Emandako dirulaguntza kobratzeko eskubidea izateko, kontzejuek aurreko urteko abendutik indarreko urteko azarora arteko gastuen jatorrizko fakturak eta horien fotokopiak (konpultsatuak izan daitezen) aurkeztuko dituzte indarrean den urteko abenduaren 15 baino lehen.

3.3. Kultura eta jai arloko jardueretarako dirulaguntzak: atal honen bidez, kontzejuetako kultur eta jai arloko jarduerak bultzatu nahi dira eta jarduera horiek sor ditzakeen gastuetan lagundu, auzokoen arteko harremanak eta herritarren talde zentzua sustatuz, bai kontzejuen barruan, bai kontzejuz kanpo ere. Horien barruan, honakoak desberdintzen dira:

a) Urteko kopuru finkoa: Kontzeju edo jai batzorde bakoitzari 500 euroko diru kopuru finkoa emango zaio herriko jaiak ospatzeko. Horretarako baldintza bakarra jai egitaraua aurkeztea izango da.

b) Kultur ekitaldiak: ehuneko 50eko dirulaguntza izango dute jai egitarauaren barruan egon eta kultur izaera nabarmen eta argia duten ekitaldiek sortutako gastuek. Gehieneko muga 3.500 eurokoa izango da.

Dirulaguntza hori ehuneko 70eraino helduko da, gehieneko muga 3.500 eurokoa dela, hizkuntza normalizazioaren eta sustapenaren mesedetan, jarduera hori osorik euskaraz burutzen bada.

Era berean, administrazio batzarrek, beren urteko egitarauaren barruan, beste kultura jarduera batzuk sustatu ahal izango dituzte, eta laguntza jaso ahal izango dute horren interesean oinarrituta.

c) Zuzeneko kontzertuak eta musika eta DJ: ehuneko 50eko dirulaguntza emango da zuzeneko musika emanaldiek, gehienbat, berbenek, kontzertuek eta errezitaldiek sortutako gastuetarako. Gehieneko muga 1.500 eurokoa da administrazio batzar bakoitzeko.

Ez da inolaz ere dirulaguntzarik emango janariak, garaikurrek, opariak eta sariak sortutako gastuetarako.

Era berean, administrazio batzarrek honakoak aurkeztu ahal izango dituzte: jai batzorde bakarra dagoela egiaztatzen dituzten agiriak eta horren izenean egindako kudeatzeko ardura. Dirulaguntzei buruzko agiri guztiek administrazio batzarraren oniritzia izango dute, eta horixe izango da erantzule subsidiarioa.

Emandako dirulaguntzak jasotzeko eskubidea izateko, kontzejuek jarduera horiek hasi aurretik eta, beti ere, azaroaren 30a baino lehen, herriko jaietako egitarauan jasotako jardueren aurrekontua aurkeztuko dute. Egitarau hori bukatu ondoren eta, beti ere, jarduneko urteko abenduaren 31 baino lehen, honakoak aurkeztuko dira: kasuan kasuko diru kopuruen jatorrizko fakturak, ordainagiriak eta horien guztien kopiak, konpultsatzeko.

3.4. Kaleak eta bideak garbitzea: kontzejuen hirigunea osatzen duten kale eta bideetako sasiak eta horiek orokorrean garbitzeko bi jarduketari eta areka eta erregistroen garbitasunari dagokien gasturako diru-laguntza. Garbiketa-lan horiek behar bezala egin ahal izateko, administrazio batzarrak eta udalak zein eremu garbituko diren adostuko dute, horiek behar bezala mugatuta. Ekarpen hau udalak zuzenean zerbitzua emanaz egingo da.

Urbanizatuago dauden aldeetan garbiketen ohiko programan sartuko dira, udalak dituen baliabideen arabera.

3.5. Nekazaritza eta abeltzaintza bideen sarearen mantentze lanak egitea: atal honi buruzko kasuan kasuko partidarekin, ehuneko 50eko partaidetza izango da hala erabakitzen duten kontzejuen nekazaritza eta abeltzaintza bideen garbiketari. Onik zaintzeko irizpideetan oinarriturik, garbiketa horrek, hau da, areketatik sastrakak kentzeak, behar bezalako maiztasuna izango du, eta enpresa bakarra kontratatuko da lan hori egiteko. Lehentasuna emango zaio herriko enpresaren bati lan hori esleitzea.

Ez da ezein bide bi urtetan jarraian garbitzeko diru-laguntza emango, dagokion Kontzejuak horren kontratazioa Udalari eskatu ahal diola baztertu gabe.

Dirulaguntza hori eskuratzeko, kasuan kasuko ekainaren 30 baino lehen dagokion eskaera aurkezteaz gain, kontzejuak hitz eman behar dute gutxienez bi (2) urterik behin egingo dutela kontzeju sare osoko nekazaritza bideen garbiketara.

Azpiegitura horien mantentze lanak behar bezala egin ez dituzten kontzejuak etorkizunean dirulaguntza horiek eskuratu nahi izanez gero, lan horiek sortutako gain kostua ordaindu behar dute.

3.6. Neguko kanpaina: kontzejuaren titularitateko kaleetatik elurra kentzeko gastuaren ehuneko 50eko dirulaguntza, makinak erabiltzearen prezioa orduko 50 eurokoa (BEZa aparte) dela oinarri hartuta. Udalaren titularitateko kaleak direnean, dirulaguntza gastu osorako izango da.

Emandako dirulaguntza kobratzeko eskubidea izateko, kontzejuak honakoak aurkeztu behar dituzte abenduaren 15a baino lehen: gastuari dagozkien diru kopuruaren jatorrizko fakturak edo ordainagiriak eta horien fotokopiak, konpultsatzeko. Neguko kanpaina aurreko urteko abenduaren 1etik indarreko urteko azaroaren 30era artekoa izango da.

3.7. Kudeatze gastuetarako dirulaguntza orokorra: administrazio batzar guztiek jasoko dute urtea bukatu baino lehen landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga dela-eta udalari ordaindu dioten diru kopuruaren ehuneko ehuna, diruzainak zerga hori kobratu izana adierazten duen egiaztatzea egin eta gero.

3.8. Jabetza Erregistroan ondasun eta eskubideen inbentarioa eta ondasunen inskripzioa eguneratzea. Gehienez ere, kostuaren ehuneko 50eko diru-laguntza emango da. Kontzejuak helburu honetarako eskaerak 2017ko irailaren 30era eskatuko dituzte.

4. Diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuk.

Parrokia elizan egindako mantentze lanak: lan horren ehuneko 18.

Deialdiaren aurrez aurreko 10 urteetan diru-laguntza jaso duen inbertsorik ez da diruz lagunduko, ezta aurreko 10 urteetan diru-laguntza jaso duen inbertsioaren helburua aldatzen duenik ere, ezinbestekoa ez bada behintzat eta, betiere, eskaera aztertuta.

Deialdi honetan parte har dezakete udalerriko kontzejuak, kontuan izanik parrokiaren higiezinaren herriaren zerbitzura lotuta daudela.

Onuradunek eskatzen zaien informazio oro emateko betebeharra dute. Beharrezkoa da alde zuzenetik gogoratu kontzejuari lan horiek egiteko baimena ematea.

Dirulaguntza eskatzeko epea azaroaren 30ean amaituko da.

5. Aurrekontu kreditua.

Diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuk izeneko 3.1 atalean eta 4. puntuan adierazitako dirulaguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2017ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: "administrazio batzarrentzako dirulaguntzak" izeneko 943734000 partida, 200.000 eurokoa.

3.2 eta 3.4 ataletako dirulaguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2017ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko diren partidak: bata, "administrazio batzarrentzako dirulaguntzak argiteri publikorako eta garbiketarako" izeneko 165434000 partida, 75.000 eurokoa, eta, bestea, kaleen garbiketara, udala eta kontzejuak (udalak zuzenean emandako zerbitzu bat baita) izeneko 163227030 partida.

3.3 ataleko dirulaguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2017ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: "administrazio batzarren jaietarako dirulaguntza" izeneko 338434000 partida, 27.000 eurokoa.

3.5 ataleko dirulaguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2017ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: nekazaritza eta abeltzaintza bideak garbitzeko dirulaguntza izeneko 410227011 partida, 15.000 eurokoa. Udalak 8.000 euroko ekarpena egingo du eta gainerakoa kasuan kasuko kontzejuek.

3.6 ataleko dirulaguntzei dagokienez, hona Zuiako udalaren 2017ko gastuen aurrekontutik gastu horietarako erabiliko den partida: "kontzejuentzako dirulaguntza elurra kentzeko" izeneko 134434000 partida, 13.000 eurokoa.

3.7 ataleko gastuetarako, hona Zuiako Udalaren 2017ko gastuen aurrekontutik erabiliko den partida: "dirulaguntzak, administrazio batzarrak" izeneko 943434000 partida, 6.104,00 eurokoa.

Azkenik, 3.8. Ondasun eta eskubideen inbentarioa eguneratu eta ondasunak jabetza-erregistroan inskribatzea ataleko gastuak 2017ko ekitaldiko 943.734.010 (Inbentarioa) partidaren kargura diruz lagunduko dira. Horren zenbatekoa 15.000 eurokoa da.

6. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Udalak, inguruabar bereziak edo egokierakoak oinarri hartuta, zenbait eskaerari tratu berezia eman ahal izango die, udalerrientzat duten interes bereziarengatik. Holakoetan, programaren kostu osorainoko aldearen ehuneko 100 era heldu ahal izango da.

Dirulaguntza hauekin batera helburu bererako beste erakunde publiko zein pribatu batzuek emandakoak jaso daitezke, baina ezin da gain finantzaketarik gertatu, hau da, guztira jasotzen den diru kopurua, erakunde guztien dirulaguntzak bat eginda, ezin da izan jardueraren guztirako kostua baino gehiago. Hainbat dirulaguntza jaso eta ondorioz gain finantzaketa gertatzen bada, onuradunak Zuiako udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, hain zuzen ere finantzatutako guztirako zenbatekoaren eta udalak emandakoaren arteko proportziozko zenbatekoa.

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoa inolaz ere ezin daiteke izan Zuiako udalak bere aurrekontu orokorrean helburu horietarako partidetan ezarritako kopurua baino gehiago.

7. Eskabideak aurkeztea.

Eskabideen eta agirien aurkezpena udalaren sarrera erregistroan egin daiteke, edo herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

Dirulaguntza hauek jasotzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta espresuki onartzea.

8. Agiriak.

Eskabide ofiziala eta inprimakia (udalak emango ditu). Inprimaki bat bete beharko da proiektu bakoitzeko.

Erakunde eskatzaileek gehienez ere hamar egun izango dituzte nabaritutako akatsak konpontzeko eta, horrela ez egitekotan, eskabideari uko egiten zaiola ulertuko da, izapide gehiagorik gabe. Hala ere, behar den bezala justifikatutako arrazoiengatik, luzatu ahal izango da epe hori.

Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei ohartarazten zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko urteroko dirulaguntzak emateko prozeduran bakarrik erabiliko direla.

9. Dirulaguntzak emateko irizpideak.

Egindako eskaerak aintzakotzat hartu ahal izateko, horiek osorik beteta egon beharko dira, eta udalak eskatutako agiri guztiak aurkeztuko dira, haietako bakoitzaren zertzelada guztiak

zehaztu ahal izatearren. Bereziki, era fidagarrian ziurtatu beharko da obraren eta izan litezkeen desbideraketen finantzaketa osoa.

10. Erantzukizuna finantzaketan.

Ordenantza arautzaile hauen kontura ematen diren laguntzen onura jasotzen duten toki erakundeek obra, zerbitzua eta, halakorik izanez gero, horietako ordainsariak osorik finantzatzeko ardura izango dute, bai eta laguntzak emateko aurreikusitako baldintza guztiak betetzeko ere.

11. Eskabideak aztertu eta ebaztea.

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta erabakiko da dirulaguntzak ematea edo ukatzea, udalean ordezkaturik dauden taldeetako partaide guztiak osatutako informazio batzordearen barruan.

Behin betiko ebazpen proposamena kide anitzeko organoak eta alkateak egingo dute dirulaguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoituaren bidez. Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.

Halaber, ebazpenean bertan jakinaraziko zaizkie interesdunei ebazpenaren aurka jar ditzaketen errekurtsioak, zer organo judiziala aurkeztu behar dizkioten, eta hori egiteko epea; dena dela, interesdunek egoki irizten dioten beste edozein eskubide ere gauza dezakete.

Ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio eta, administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean, hura jakinarazten den unetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epealdian errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

12. Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntzak kobratzeko, oinarri hauetan xedatutako berariazko kasuetan izan ezik, dagozkien fakturen eta ordainketa egiaztagirien jatorrizkoak eta fotokopiak aurkeztu beharko dira, konpultsatzeko.

Dirulaguntzen konturako ordainketak, erakunde onuradunek behar bezala onetsitako obra ziurtagiriak eta jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu ondoren eta udalak izendatutako teknikari eskudunek -hala balegokio- haiek onartu ondoren egingo dira.

Obra izanez gero, obra amaitutakoan enpresa esleipendunari egindako ordainketen egiaztagiria bidali beharko ditu toki erakundeak. Egiaztagiri horiek bidaltzeko hiru hilabeteko epea egongo da.

Obraren likidazioari edo azkeneko ziurtagiriari dagokion dirulaguntza ordaintzeko baldintza izango da bete beharreko administrazio dokumentu guztiak udalari bidaltzea, lana egin aurrekoak nahiz egin bitartekoak direla, hala nola aktak, hasierakoa, zuinketako eta harrerakoa, azkeneko ziurtagiria, etab.

Diruz lagundutako lanak justifikatzeko eperik luzeenak ezingo da diru-laguntza ematen ekitalditik haratago joan, eta horrela ezean, ezeztatu egingo da.

Kontzejuak urteko kontuak aurkeztu eta diruz lagundutako lan bati dagokion faktura bat ordaintzea ezinezkoa zaiola erakutsiko balu, udalak fakturaren zenbatekoa ordainduko du kontzejuaren kontuan. Ordainketa hori diru-laguntzaren konturako abonua izango da. Kontzejuak hartzekodunari ordaindu diola ziurtatu beharko du ordainagiria aurkeztuz, udalaren transferentzia jaso eta 10 eguneko epean. Edozein kasutan, ordainagiriak eta diruz lagundutako gastua zurrizko dokumentazioa aurkezteko epea aurreko paragrafoan adierazitakoa izango

da. Udalak konturako abonua gisa ordaintzen duen kopurua inoiz ere ez da izango egokitutako dirulaguntzaren kopurua baino handiagoa.

Proiektua eta segurtasun eta osasun planak idazteko ordainsarietarako dirulaguntzen ordainketa jatorrizko faktura edo minura edo fotokopia konpultsatua aurkeztu ondoren egingo da, obra esleitu eta gero.

Obraren zuzendaritzako eta segurtasuna eta osasuna koordinatzeko ordainsarietarako dirulaguntzen ordainketa, erakunde onuradunak lanari dagokion azkeneko likidazioa onartzen duenean egingo da.

13. Erakunde onuradunaren betebeharrak. Dirulaguntza galtzea.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak nahitaez burutu beharko du aurkeztutako proiektua. Orobat, deialdi honetan ezarritako xedapenak bete beharko ditu, bai eta laguntzak eta dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen udal ordenantzaren agindutakoa ere.

Hain zuzen ere, erakunde eskatzaileari gogorarazten zaio derrigorrezkoa dela Zuiako udalaren babesa aipatzea diruz lagundutako jarduera sustatzeko elementuetan eta horren inguruan egiten diren karteletan, idazkietan edo dokumentuetan. Elementu horiek guztiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan editatu beharko dira.

Ondoko kasuetan erakunde onuradunak deialdi honen bidez emandako dirulaguntzak gal ditzakete, espedientea ireki eta gero:

- Aurkeztutako eskaera eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- Dokumentazioa aurkezteko epealdia amaitutakoan, hori aurkezteko eskaera espresua eginda, hori aurkezten ez bada.
- Oro har, oinarri hauetan edo dirulaguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharrak bat betetzen ez bada.
- Dirulaguntza galduz gero, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira Zuiako udalaren kontura transferentzia eginez. Erakunde batek eskatzen zaion kopurua bere borondatez itzultzen ez badu, ezin izango du udalaren inolako dirulaguntzarik jaso; udalak zenbatekoak eskuratu ahal izango ditu.

14. Dirulaguntza aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan gertatzen den edozein aldaketak, ebazpena aldatzeko bide eman dezake.

15. Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Laguntza hauekin batera beste laguntza edo dirulaguntza batzuk ere eskura daitezke.

Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik zein beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batzuek emandako laguntza zein dirulaguntzekin bat eginda, ezin da izan inolaz ere onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago.

16. Interpretazioa.

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebartziko ditu, informazio batzordeak txosten teknikoa eman eta gero.

17. Arau haustea eta zehapenak.

Dirulaguntzak direla eta, administrazioko arau hauste izango dira dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorreko IV. kapituluan jasotako egite edo ez-egiteak.

18. Legeria gehigarria.

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian, Zuiako udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorrean eta dirulaguntzen lege orokorrean eta horren arautegian xedatutakoa hartuko da kontuan.

Zuiako historia ondareari lotutako ikertzeko 2017ko Eugenio Murguía bekaren deialdia eta oinarri arautzaileak

1. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen helburua da Zuiako kultura eta historia ondareari lotutako ikerketa-proiektuen garapena bultzatzeko beka bat norgehiagoka bidez ematea. 2017ko ekitaldirako beka honen zenbatekoa 6.000,00 eurokoa da, eta xede duen ikerketa-lana Zuiako ondare historikoko tokien eta elementu eraiki eta arkeologikoen katalogoan oinarrituko da.

Beka ikerlari bati edo ikerlari talde bati eman ahal izango zaio. Ikerlari talde bati emanez gero, era solidarioan beteko dira bekadunek udalarekin izango dituzten betebeharrak.

2. Onuradunak.

2.1 Bekak lortzeko, beharrezkoa da:

a) 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik erroldatuta egotea etengabe EAEko zeinahi herritan.

b) Goi mailako titulua edo lizentzia izatea, hobe bekaren azterlanarekin zerikusia duena bada, edo proiektuaren helburuaren arloan curriculum esanguratsua izatea edo eskatzailearen ikerketa proiektua edo haren jakituria eta proposatutako gaia garatzeko gaitasuna egiaztatzen duen irakasle aditu batek egindako txostena aurkeztea.

Atzerrian lortutako tituluak, edo titulartasun pribatua duten ikastegietakoek, baliozkotutak edo onartutak egon behar dute, bai eta beka ematen diren unean ondorio zibil osoak eduki ere.

2.2 Beka eskuratzen duena ikerlari bik edo gehiagok osatutako talde bat denean, talde horretako ikerlari guztiek bete beharko dituzte aurreko lerroaldean adierazitako betekizunak.

2.3 Beka horietaz baliatzeak ez du esan nahi Zuiako Udalarekin lan harremanik dagoenik, ez eta bekadunak langileen plantillan sartzeko konpromisorik hartu denik ere.

2.4 Bekadunaren programako ikerketa lanak, osorik edo zati bat, Zuiako udal bulegoren batean egin behar badira, jendaurreko ordutegira moldatuko dira.

3. Diruz lagundu daitezkeen proiektuak.

Zuiako ondare historikoko tokien eta elementu eraiki eta arkeologikoen katalogoa xede duten ikerketa proiektuek jaso ahal izango dute beka, horietara zuzenduta baitago 2017ko ekitaldirako beka deialdi hau.

Oinarri arau hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hogeita hamar egun izango dira eskaerak aurkezteko.

4. Aurrekontu kreditua.

Zuiako Udalaren 2017ko ekitaldikoko gastuen aurrekontuko 334.480.010 partidaren, "Eugenio Murguía ikerketa beka" izenekoaren, kontura emango dira bekaren 6.000 euroak.

5. Eskaerak aurkeztea.

Eskaerak eta agiriaren aurkezpena udalaren sarrera erregistroan egin daiteke, edo herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

Oinarri arau hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hogeita hamar egun izango dira eskaerak aurkezteko.

Dirulaguntza hauek jasotzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta espresuki onartzea.

6. Agiriak.

Eskabide ofiziala eta inprimakia (udalak emango ditu).

Eskatzaileek gehienez ere hamar egun izango dituzte nabaritutako akatsak zuzentzeko eta, horrela ez egitekotan, eskabideari uko egiten zaiola ulertuko da, izapide gehiagorik gabe. Hala ere, behar den bezala justifikatutako arrazoiengatik, luzatu ahal izango da epe hori.

Abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoan, datu pertsonalen babesari buruzkoan, xedatutakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei ohartarazten zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko urteroko dirulaguntzak emateko prozeduran bakarrik erabiliko direla.

Bi gutun azal itxi aurkeztuko dira; bataren aurrealdean A letra jarriko da eta bestearenean B letra. Era berean, landuko den proiektuaren izena eta "Eugenio Murguía ikerketa beka" erreferentzia ere idatziko da haietan.

A gutun azalean agiri hauek sartuko dira:

1. NANaren fotokopia.
2. Eskatzailearen curriculum vitae.
3. Eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua edo irakasle aditu batek, proiektua babestuz, egindako txostena edo abala.
4. Errolda ziurtagiria.

B gutun azalean landuko den gaiari buruzko proiektua aurkeztuko da. Proiektu horrek, gehienez, Din A4 neurriko 10 folio izango ditu, alde batetik idatzita.

7. Dirulaguntzak emateko irizpideak.

Egindako eskaerak aintzakotzat hartu ahal izateko, horiek oso osorik beteta egongo dira, eta udalak eskatutako agiri guztiak aurkeztuko dira, haietako bakoitzaren zertzelada guztiak zehaztu ahal izatearren.

Informazio batzordeak izango du izapidetzeko eskumena, eta batzorde horrek aztertuko ditu aurkeztutako eskaerak. Dena den, batzorde horrek aholkua eska diezaiekie adituei, hala nahi izanez gero.

Balorazioa ondoko irizpideen arabera egingo da:

1. Proiektua egiteko interesa (70 puntu). Kontuan izango da proiektuak ondarearen berreskuratze prozesuan eragina izan ahal duela eta Zuiako udalerriaren historia eta ondarea hobeto ezagutzen laguntzen duela.

2. Eskatzailearen curriculum vitae (30 puntu).

Eskatzaileek, beka jaso ahal izateko, 100 puntutik 60, gutxienez, lortu beharko dituzte.

Batzordeak, egoki irizten badio, kanpoko adituen txostenak edo aholkularitza teknikoak eska ditzake aurkeztutako proiektuak ebaluatzeko.

Batzorde horrek beka eman gabe uzteko eska dezake, aurkeztutako eskaerak ikusi eta gero.

Bateraezintasunagatik, absentziagatik edo uko egin izanagatik ordezkorik hautatu behar bada, batzordeak zerrenda osatuko du beka eskatu dutenenekin, eta lehentasunen arabera antolatuko du hura.

Zuiako Udalak, egoki irizten dion kasuetan, aurkeztutako agiriei buruzko datuak eta azalpenak eskatzeko ahalmena izango du. Espedientea atzeratu, eta are artxibatu ere egin daiteke, baldin eta datu nahiz azalpen horiek ez badira bideratzen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako epeetan.

Batzordeak txosten bat egingo du, deialdian ezarritako irizpideen arabera aurkeztutako eskaerak erkatu ondoren, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun hurrenkera zehaztuko da, hala badagokio.

Eskatzaileari ez zaio entzunaldiko izapiderik eskainiko, ebazpenean eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak besterik ez direlako aintzat hartu.

Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du; horretarako, gehienez ere, bi hilabeteko epea izango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik. Epea igaro eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

Esleipen ebazpenean zer eskatzaileari eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

Ebazpenean datu hauek agertuko dira, baiezkoa bada: bekaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo proiektua, aurkeztu beharreko agiriak eta bete beharreko baldintzak. Gainera, onuradunei jakinaraziko zaie, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Herri administrazioen administrazioa prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 40. artikuluan xedatutako moduetan jakinaraziko zaie eskatzaileei dirulaguntza eman ala ukatu zaien.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du; beraz, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duenaren, 8.1 artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, administrazio auzietarako epaitegi nagusietan. Horretarako bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epean errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Zuiako Udalak deialdia garatzeko bidezko diren ebazpenak emango ditu, eta behar diren ekintzak egin ahalko ditu onuradunei datuak eskatzeko, eta ziurtatzeko aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta oinarrietan araututakoa bete dela. Horretarako, onuradunak behartuta daude Zuiako Udalak eskatzen dizkien datuak eta agiriak, hau da, egindako jardueri buruzko datuak eta agiriak, aurkeztera.

8. Dirulaguntza ordaintzea.

Esleitutako bekaren ordainketa bi emanalditan egingo da, ondoren azaltzen den moduan:

a) Bekaren zenbatekoaren ehuneko 50, laguntza esleitzen den unetik aurrera. Aurreratutako diru hori zuritu egin beharko da.

b) Gainerako ehuneko 50a, lana bukatutakoan, oinarri hauetan zehazten den memoria edo egindako lana aurkeztu ondoren. Memoria edo lan hori euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko da. Lana udalean aurkeztuko da, bai paperean bai euskarri digitalean.

c) Batzorde eskudunak oniritzia emandakoan.

9. Bekadunaren betebeharrak.

Azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorrak, dirulaguntzenak, 14. artikuluan eta uztailaren 21eko 887/2006 errege dekretuak, lege orokor horren arautegia onartzen duenak, xedatukoa beteko dute bekadunek.

Beka eskuratzeko eskaerak aurkezteak oinarri hauetako arauak berariaz eta baldintzarik gabe onartzen direla esan nahi du.

Proiektuaren memoria aurkezteko epea 2017ko abenduaren 31n bukatuko da. Memoria udalaren sarrera erregistroan aurkeztuko da, edo herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

Dirulaguntza jasotzeak berekin izango du deialdi honetan ezarritako xedapenak bete behar izatea, bai eta laguntzak eta dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen udal ordenantzan agindutakoa ere. Hain zuzen ere, eskatzaileari gogorarazten zaio derrigorrezkoa dela Zuiako Udalaren babesa aipatzea diruz lagundutako jarduera sustatzeko elementuetan eta horren inguruan egiten diren karteletan, idazkietan edo dokumentuetan. Elementu horiek guztiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan editatu beharko dira.

Onuradunek deialdi honen bidez emandako dirulaguntzak gal ditzakete, aurrez espedientea irekita, ondoko kasuetan:

- Aurkeztutako eskaera eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- Dokumentazioa aurkezteko epea amaitutakoan, berariaz eskatuta aurkezteko, aurkezten ez bada.
- Oro har, oinarri hauetan edo dirulaguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharrak bat betetzen ez bada.
- Dirulaguntza galduz gero, itzuli egingo da jasotako dirua, Zuiako Udalaren kontura transferentzia eginez. Onuradun batek eskatzen zaion kopurua bere borondatez itzultzen ez badu, ezin izango du udalaren inolako dirulaguntzarik jaso; udalak zenbatekoak eskuratu ahal izango ditu.

10. Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Beka hau ezin da beste beka batekin batera gozatu, ezta edozein erakunde edo korporazio zein pertsona publiko edo pribaturekin bekadunak hitzarmen edo estatutu lotura izanda soldatarik edo lansaririk kobratu ere, Zuiako Udalak horren berri ez badauka eta horretarako berariazko baimenik eman ez badu.

11. Laguntza itzultzea.

Era berean, jasotako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira 3/1997 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei eta transferentziei buruzkoak, azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorrak, dirulaguntzenak, eta uztailaren 21eko 887/2006 errege dekretuak - azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia, dirulaguntzena, onartzekoa- xedatzen dituzten egoeretan.

Onartutako diru-laguntza dela-eta jasotako diru zenbatekoak itzuli behar izatekotan, zuzenbide publikoko diru-sarrerak direla ulertuko da eta dagokion araudian aurreikusitakoaren arabera kobratuko dira

12. Interpretazioa.

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak eta dagokien teknikariek aurrez txostena eginda.

13. Lanen jabetza.

Zuiako Udalarena izango da aurkeztutako proiektua, eta ezinbestekoa izango da haren bai-
mena hura kopiatu edo argitaratzeko.

Edonola ere, deialdia egin duen erakundeak ez du inolako betebeharririk izango beken onu-
radunenganako, aipatutako lanak argitaratu edo erakusteagatik.

14. Arau haustekak eta zehapenak.

Dirulaguntzak direla eta, administrazioko arau hauste izango dira dirulaguntzak eta laguntzak
arautzen dituen ordenantza orokorreko IV. kapituluaren jasotako egite edo ez-egiteak.

15. Legeria gehigarria.

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian, Zuiako Udalaren dirulaguntzak eta laguntzakarautzen
dituen ordenantza orokorrean eta dirulaguntzen lege orokorrean eta horren arautegian xeda-
tutakoa hartuko da kontuan.

Zuiako ikasleen gurasoen elkarreentzako diru-laguntzen deialdia eta horiek arautzen dituzten oinarriak

Zuiako udalak badaki zer-nolako garrantzia duen hezkuntzak haurren prestakuntzan eta
ezagutzetan nahiz balioetan oinarrituta gero eta gehiago prestatzen den gizartearen eraikuntzan,
eta jakin badaki, halaber, familiek hezkuntza egituraren betetzen duten eginkizuna garrantzitsua
dela, familiak funtsezko faktore baitira hezkuntzaren berariazko helburuak betetzeko, horren
oinarrizko zutabeetako bat izanik. Izan ere, gaur egun ukaezina da hezkuntza komunitatearen
eta, bereziki, familien parte-hartzea eskola arrakasta bermatzen duen faktorea dela.

Udalak hainbat jarduera garatu ditu udalerriko gurasoen elkarten jarduna sustatzeko eta
aldizka lagundu die beren jarduna betetzen.

Ikasleen gurasoen elkarreentzako laguntzen deialdiaren helburua da horrelako elkarteak
egon daitezela sustatzea, haien esku-hartzea indartzea eta elkarteek antolatzen dituzten eta ikas-
leen prestakuntza osoan eta, beraz, haien eskola arrakastan eragin garrantzitsua duten eskolaz
kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak sortutako gastuen zati bat ordaintzea. Era berean,
hezkuntza arloko laguntza bereziko beharrak dituzten ikasleentzako baliabide pedagogikoak
ezarri nahi dira udalerrian dauden ikastetxeetan. Behar horiek curriculumaren egokitzapenari
buruzko instrukzioetan eta indarren dagoen legerian ezarritako beharrezko hezkuntzako sal-
buespenetan ezarrita daude.

1. Deialdiaren helburua.

Ikasleen gurasoen elkarreentzako laguntzen deialdiaren helburua da haien esku-hartzea
indartzea eta elkarteek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta
opor jarduerak sortutako gastuen zati bat ordaintzea, eta baita ikasleen behar psikopedago-
gikoen gastu osoa ordaintzea ere. Izan ere, jarduera horiek eragin garrantzitsua dute ikasleen
prestakuntza osoan eta, beraz, haien eskola arrakastan, eta gurasoen elkarten eta sistemaren
beraren sostengurik gabe ezin litezke bideratu.

2. Onuradunak.

Zuiako ikastetxe publikoetako gurasoen elkarteak (IGE) izango dira deialdi honen onuradu-
nak. Erakunde onuradunek derrigorrezko hezkuntza ematen duten ikastetxeekin lotuta egon
behar dute.

Laguntza jaso ahal izateko, gurasoen elkarteak Zuiako Udalarari zerga-arloan ordaindu beha-
rrekoak ordainduta izan beharko ditu eta helburu bereko beste diru-laguntza edo laguntzarik
jaso duen jakinarazi.

3. Diruz lagunduko diren jarduerak.

Deialdiaren barruan alor hauetarako laguntzak emango dira:

3.1. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak. 2016-2017 ikasturtea.

Ikasleentzako jarduera osagarriak eta curriculumetik kanpokoak, eta ikasle zein ikastetxeetako gurasoentzako eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeak sortutako gastuetarako laguntzak emango dira atal honetan.

Jarduerak 2016ko irailaren 1etik 2017ko ekainaren 30era bitartean gauzatu beharko dira.

Ikastetxeko ordezkari organo gorenaren onespena beharko du jarduera proposamenak, eta 2016-2017 ikasturterako urteko planaren barruan sartuta egon.

3.2. Behar psikopedagogikoak 2017.

Arlo honetako diru-laguntzak dagokion ikastetxeko ikasleen behar psikopedagogikoak ordaintzera zuzendutako gastuetarako emango dira. Behar horiek ikastetxeko aholkulariak edo orientatzaileak zerrendatu eta zenbatuko ditu.

Jarduera horiek batez ere ikastetxean bertan garatuko dira, beharrezko iraupenarekin eta behar bezala aprobetxatuz eta, arau orokor gisa, eskola egunetan.

Ikastetxeko ordezkari organo gorenaren onespena beharko du laguntza psikopedagogiko honen proposamenak, eta 2016-2017 ikasturterako urteko planaren barruan sartuta egon, ikastetxeko teknikariek dagokion txostena egin ondoren.

4. Aurrekontu zuzkidura.

Jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoei dagozkien gastu hauek Zuiako Udalaren 2017ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko ondorengo partidaren kargura egingo dira: 326.481.000 (16.500 euro), 326.481.040 (1.000 euro) eta 326.481.050 (3.000 euro).

Laguntza psikopedagogikoari dagozkion gastuak Zuiako Udalaren 2017ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 326.481.070 partidaren kargura egingo dira. Gastu hau 10.000 eurokoa izango da.

5. Eskabideak aurkeztea.

Deialdian parte hartu nahi duten elkarteek eskabidea aurkeztu beharko dute, baldintza hauei jarraiki:

5.1. 2016/2017 denboraldiko programa edo proiektuetarako eskaerak eta horiekin batera zazpigarren oinarrian eskatzen diren agiriak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, ALHAOn deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

5.2. Eskabideen eta agirien aurkezpena udalaren sarrera erregistroan egin daiteke, edo herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legean adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

5.3. Diru-laguntza hauek jasotzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea.

5.4. Ezin izango dituzte eskuratu diru-laguntza hauek diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorreko IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zigorren bat ezarri zaizkion.

6. Berariazko dokumentazioa.

Eskabide ofiziala eta inprimakia (udalak emango ditu). Horrekin batera, ikasturte osorako aurreikusitako jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak azaltzen dituen memoria aurkeztu beharko da.

Halaber, beharrezkoa balitz, ikasturte osorako aurreikusitako laguntza psikopedagogikoen programa, txosten teknikoarekin batera, eta dagokion ikastetxeko ordezkari organo gorenaren onespena gehituko dira. Edozein kasutan, datu pertsonalak babesteari buruzko legeria bete eta errespetatu beharko da.

Laguntza psikopedagogikoko zerbitzua aukeratzeari dagokionez, kabinete psikopedagogikoen aurrekontua eta ikastetxeko langile espezializatuek egindako txostena gehituko dira, eta hautatutakoa aukeratzeko kontuan izandako arrazoi ekonomikoak, teknikoak zein profesionalak adieraziko dira.

Eskatzailearen estatutuen fotokopia eta elkarte eta erakundearen erregistroan legez eraturik eta erregistraturik dagoela frogatzen duten agiriak. Aurreko urteetan aurkeztu dituzten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, aldaketarik izan ez bada.

Gizarte segurantzako eta ogasunaren diruzaintza nagusiko betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria, eta halakorik ezean zerga betebeharrekin egunean dagoelako zinpeko aitortpena edo udalari horiek eskatzeko baimena ematea, I. eta II. eranskinen arabera. Beharrezkotzat joz gero, ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dira.

Udalak interesdunei eskatuko die akatsak zuzentzeko hamar eguneko epealdian (ezin izango da luzatu) eta ohartaraziko die eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin dutela pentsatuko dela, beste izapiderik gabe.

Datu oertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoan xedatutakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

7. Laguntzak emateko prozedura.

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta bakoitzari diru-laguntza eman edo ez ebatziko da.

0.1. Espedientea bideratzeko eta ebatzeko eskumena daukan organoa.

Diru-laguntza emateko eskumena alkateak izango du, informazio batzordearen txostena jaso ondoren.

0.2. Aztertzea eta ebatzea.

Teknikariek eskaerak aztertu eta instruktoreari lagunduko diote.

Instrukziogileak jarduera hauek egin behar ditu: ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu, besteak beste arloko teknikariari eta idazkari kontu-hartzaileari, eta eskaerak ebaluatu oinarri hauetan ezarritako irizpideen, helburuen edo lehentasunen arabera.

Eskaerak ebaluatu ondoren espedientea oinarri arautzaileetan azaroaren 17ko 38/2003 legeko 22.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik ezarritako kide anitzeko organoari bidaliko zaio eta honek eskaeraren gaineko txostena egingo du.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena aztertu ondoren organo instruktoreak behin-behineko ebazpen proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta. Gero proposamena interesdunei jakinaraziko zaie eta haiek hamar eguneko epealdia edukiko dute alegazioak aurkezteko.

Entzunaldiaren izapidea ez da beharrezkoa izango baldin eta prozeduran interesdunek aurkeztutako gertaerak eta alegazioak baino ez badira agertzen eta kontuan hartzen. Hala denean, ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

Ebazpen proposamenean ondoko datuak zehaztu behar dira gutxienez: diruz lagunduko den proiektua, diru-laguntzaren zenbatekoa eta gastuak frogatzeko epealdia.

Behin betiko ebazpen proposamena kide anitzeko organoak eta alkateak egingo dute diru-laguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoituaren bidez. Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.

Halaber, ebazpenean ondokoen berri emango zaie interesdunei: zer errekurtsio aurkez ditzaketen ebazpenaren aurka, zer organo judiziala aurkeztu behar dizkioten eta zenbateko epealdia daukaten horretarako. Errekurtsioak aurkeztea gorabehera interesdunek nahi dituzten eskubide guztiak erabil ditzakete.

Eskaerak ebazteko epealdia hiru hilekoa izango da aurkezteko epealdia bukatzen denetik. Epealdi horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsizat jo beharko dira.

Ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio eta, administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.1. artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean, hura jakinarazten den unetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epean errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Laguntzen zenbatekoa zehazteko prozedura.

0.3. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak. 2016-2017 ikasturtea.

Diru-laguntza jasoko dute, lehentasunez, gurasoen elkarteek garatzen dituzten jarduera osagarriak eta curriculum eta eskolaz kanpokoak, horien azken helburua haurren garapen fisiko eta intelektuala baldin bada. Honako programa hauek lehentasuna izango dute:

- Euskararen erabilera sustatu eta bultzatzen dutenek.
- Eskola komunitatearen parte-hartzea eta kohesioa sustatzen dutenek.
- Kulturaren hedapen eta sustapenerako jarduerak eta kirol praktikakoei, ikastetxeko programaren alderdi osagarriak lantzen badituzte.
- Neskak eta mutikoen arteko aukera berdintasuna bermatzen duten programek edota ekintzek.
- Baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden taldeen parte-hartzea eta jarduna bultzatu eta bermatzen dituzten programek.

0.4. Behar psikopedagogikoak 2017.

Atal honetan emandako laguntzaren zenbatekoa eskaeran jasotako gastu osoa izango da, dagokion partidaren aurrekontuko mugarekin. Horrela, deialdi honetan honelako laguntzetarako ezarritako baldintza guztiak beteko dira.

Laguntza hori hiru hilabeteka ordaindu ahal izango da, IGEEK dagokien ikastetxeko zuzendaritzaren oniritziak aurkeztutako fakturak jaso ondoren. Ikastetxe bakoitzeko IGEEK nahiz zuzendaritzek dagokion kabinete psikopedagogikoak bereganatutako betebeharrak betetzen dituela zainduko dute.

8. Diru-laguntzak emateko irizpideak.

0.5. Eskaeran (inprimakian eta I. formularioan) adierazitako datuak baloratuko dira laguntzen zenbatekoa finkatzeko.

0.6. Diru-laguntzak emateko eta haien zenbatekoak finkatzeko irizpideak, laugarren oinarrian ezarritako mugak gorabehera, ondoko hauek dira:

- Kirol eta kultura arloko eskolaz kanpoko jarduerak..... ehuneko 50.
- Eskolaz kanpoko jardueretarako materiala ehuneko 50.
- Antzezlanak, bertsoak, kirol ekitaldiak, ipuin kontalariak, dantza, musika, etab. ehuneko 50.
- Argitalpenak (hezkuntza arloan interesgarritzat jotakoak) ehuneko 50.
- Kultur irteerak eta txangoak eta antzekoak ehuneko 50.
- Kartelak, programak, publizitatea..... ehuneko 25.
- Euskara: euskararen sustapena..... ehuneko 70.

Kontzeptu bakar batengatik diruz lagundu ahal izango da jarduera edo ekintza bakoitza.

9. Laguntzaren bateragarritasuna.

Ematen den diru-laguntza bateragarri izango da helburu berarekin beste edozein erakunde publiko edo pribatuk ematen dituztenekin, baldin jardueraren gain-finantziatorik gertatzen ez bada. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienezko mugara arte.

Zuiako Udalak beste deialdi batzuetan berariaz diruz laguntzen dituen jarduerak deialdi honetatik kanpo geratuko dira.

10. Elkarre onuradunen betebeharrak.

Deialdi honetan araututako laguntzen onuradun diren elkarteek betebeharrak hauek izango dituzte:

10.1. Laguntza jaso duten jarduerak edo proiektuak burutzea.

10.2. Zuiako Udalak ikuskatzeko eta finantzak kontrolatzeko egiten dituen lanak onartu eta laguntzea.

10.3. Jarduera edo proiektu bererako beste laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, jakinaraztea.

10.4. Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, hura eman duen erakundeari jakinaraztea.

10.5. Guraso elkarteek jende orori zuzendutako esku-orriak, kartelak eta abar eginez gero, bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte, eta udalaren logotipoa erantsi.

10.6. Diruz lagundutako jarduerak izan ditzakeen arriskuen erantzukizuna bere gain hartu beharko du elkarteak eta, beharrezkoa bada, dagokion aseguruia kontratatu.

Ondoren azalduko diren kontzeptuek eragiten dituzten gastuak ezin dira zenbatu diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko puntuazioaren baremoaren eta gastuen justifikazioaren arabera: otorduak, oro har, joan-etorriak norbere ibilgailuan eta faktura bidez frogatu ezin diren gastuak ere ezin dira zenbatu (ikusitako gastuak frogatzeko modua).

11. Diru-laguntza emateko prozedura.

Diru-laguntzei buruzko ebazpenean elkarre bakoitzaren puntuak zehaztuko dira eta zenbatekoaren ehuneko 75era arte aurreratu ahal izango da. Diru-laguntzaren benetako balioa onuradunak gastuak frogatzen dituenean ezarriko da.

12. Diru-laguntza ordaintzea.

12.1. Urteko programetan, alde zuzenetik ordaindu ahal izango da diru-laguntzaren ehuneko 75, gehienez.

12.2. Ezohiko programetan eta jarduera zehatzetan, diru-laguntza ordaintzeko ezinbestekoa da jarduera egin dela frogatzea eta beraren memoria aurkeztea jarduera amaitu ondoren eta diru-laguntza eman duen ebazpenean ezarritako epealdian.

12.3. Diru-laguntzaren zati bat aldeztu aurretik ordaindu ahal izango da, hau da, onuradunak 12. oinarrian ezarritakoaren arabera aurkeztu beharrezko frogagiriak eman aurretik.

13. Diru-laguntza justifikatzeko epealdia.

Diru-laguntzaren bat jasotzen duten erakundeek hurrengo oinarrian adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte diru-laguntza emateko ebazpenean ezartzen den eguna baino lehen, eta ezinbestean 2017ko urriaren 30a baino lehen.

14. Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak.

– Diruz lagundutako proiektu edo programa bakoitzaren memoria likidazioa (eredua udal bulegoetan eska daiteke); datu hauek adierazi behar dira:

Egindako jarduerak. Aldiak: egunak eta orduak. Parte-hartzaileak. Helburuak eta balorazioa. Jarduerak sortutako sarreraren eta eragindako gastuen balantzea.

Kontzeptu guztiek sortutako sarrerak hartu behar dira kontuan: bazkideen kuotak, laguntza ekonomiko publiko zein pribatuak, eta jasotako gainerako diru kopuru guztiak (materialen salmentagatik jasoak, zozketek sortuak...).

Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak eragindako gastuak frogatzen dituzten agiriak: fakturak eta hartu agiriak, bankuaren ordain-ketaren frogagiriarekin (fotokopia konpultsatuak), guztira jasotako diru-laguntzaren zati proportzionalari dagokion zenbatekoa jotzen dutenak, gutxienez.

Gastuak frogatzeko ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi ezarrita ez dituzten ordainagiriak, fakturak eta gainerakoak:

- Emailea: izena eta NAN edo sozietatearen izena eta IFZ.
- Hartzailea: egoitza eta IFZ (diru-laguntza jaso duen erakundea izan behar da).
- Gastuaren xedea.
- Data.
- BEZ: aplikatutako zerga tasa(k).

Gastuen frogagiriak inprimakiko kontzeptuen arabera antolatu eta multzokatu behar dira.

– Zinpeko aitortzea: beste administrazio edo erakunde zein organismo publikoren batek xede bererako diru-laguntzarik edo laguntzarik eman dionez. Beste diru-laguntzaren bat lortuz gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administrazio eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

– Diruz lagundutako jarduerari buruzko programa, kartel eta publizitateko elementuen ale bana.

15. Erakunde onuradunaren betebeharrak. Diru-laguntza galtzea.

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak nahitaez burutu behar du aurkeztutako proiektua. Gainera, deialdi honetan ezarritako xedapenak bete behar ditu, bai eta diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen udal ordenantzan agindutakoa ere.

Hain zuzen ere, erakunde eskatzaileari hauxe gogorarazten zaie: derrigorrezkoa da Zuiako Udalaren babesa aipatzea diruz lagundutako jarduera sustatzeko elementuetan, karteletan, idatzietan edo dokumentuetan. Gainera, elementu horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan editatu behar dira.

Ondoko kasuetan erakunde onuradunek deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak gal ditzakete, espedientea abiatu ondoren:

- Aurkeztutako eskaera eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- Ezarritako epealdian agiriren bat aurkezten ez bada, berariaz eskatu arren.
- Oro har, oinarri hauetan edo diru-laguntza ematen duen erabakian ezarritako betebeharrretako bat betetzen ez bada.

Diru-laguntza galduz gero, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira Zuiako Udalaren kontura transferentzia eginez. Erakunde batek eskatzen zaion kopurua bere borondatez itzultzen ez badu, ezin izango du udalaren inolako diru-laguntzarik jaso; Udalak zenbatekoak eskuratu ahal izango ditu.

16. Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, horren inguruko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

17. Interpretazioa.

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak txosten teknikoa eman eta gero.